



Bilbo, 2011ko urtarrilaren 17a

Kide preziatua:

Aurreikusitako epeak eta arauak betez, 2011ko urtarrilaren 15ean itxi zen EHPEren Zuzendaritza Batzordea berritzeko hautagaiak aurkezteko epea. Bozketarako txartelean azaltzen denez, hautagai-zerrenda bakarra aurkeztu da hutsik geldituko diren karguak betetzeko: Lehendakaria, Arabako, Nafarroako eta Bizkaiko Lehendakariordeak, Diruzaina, Gipuzkoako Batzordekidea eta Kirurgia Pediatrikoko Batzordekidea.

Hauteskundeak hurrengo bileran egingo ditugu, **2011ko apirilaren 8an, Donostian. Juan Rodriguez Soriano irakaslearen oroimenezko** lehen ekitaldia izango da.

Gure estatutuetako 33. artikuluan jasotzen denez: *“Bozketa boto-txartelen bidez egingo da. Bazkideek Hauteskunde-mahaiko Lehendakariari emango dizkiote txartelak, hautestontzian sar ditzan. Bozketa amaitu ondoren, Hauteskunde-mahaiko kideek txarteletan azaltzen diren izenak eta abizenak adieraziko dizkiote Zuzendaritza Batzordeari, artxibatuta gera daitezen”*.

Hautesleek ziurtatutako posta bidez ere eman ahal izango dute botoa. Horretarako, honako urrats hauek eman beharko dituzte:

1. Kargu guztiak jasotzen dituen boto-txartel bateratua **BETE**
2. Boto-txartela gutun-azal zuri txiki batean **SARTU**
3. Gutun-azal zuri txikia **ITXI** eta Hauteskunde-mahaiko Lehendakariari zuzendutako gutun-azal handian sartu
4. Gutun-azal handiaren atzealdean **BOTO-EMAILEAREN IZENA ETA SINADURA IDATZI**, **“HAUTESKUNDEAK”** hitza ere jarri. Bozketaren bezperara arte jasotako botoak onartuko dira; ondoren jasotakoak ireki gabe baztertuko dira.
5. **ORDEZKO BOTOA:** Posta bidezko botoen baldintza berberak beteko ditu. Horretarako, ordezkari izango den bazkide numerarioaren bidez helaraziko den gutun-azal handian **“Hauteskundeak”** hitza idatziko da eta barruan boto-txartela gordetzen duen gutun-azal txikia sartuko da.

Javier Korta doktorea izendatu dugu Hauteskunde-mahaiko Lehendakari, eta beraz, bere izenean bidaliko dira posta bidezko botoak, idazpuruan azaltzen den EHPEren posta-kutxara.

Bilera Zientifikoan egingo dugu Elkartearen **Ezohiko Batzar Nagusia**, erantsita doan Gai-zerrenda izango duena. Datozen asteetan jasoko duzue bilera horri buruzko informazioa. Bertan parte hartzeko deia egin nahi diegu bazkide guztiei.

Adeitasunez agurtzen zaitugu,

Ana Fernández-Teijeiro
EHPEko Idazkaritza